

# Iramuteq software librea: testuen analisi automatikoa hezkuntzarako eta ikerkuntzarako estrategia gisa

Ordu kopurua: 1 ECTS

## Hartzaileak

Iramuteq softwarearen bidezko testu analisi automatikoa ikerkuntza estrategia bezala ezagutzeko interesatuta dagoen irakasle, ikertzaile edo ikasle oro.

## Sarrera / Ikastaroaren deskribapena

Iramuteq testuen eta galdera-sorten Analisi Multidimentsionalerako R interfazeaz oinarritutako software librea da, Pierre Ratinaudek garatua, Tolouseko Unibertsitateko LERASS laborategian (<http://www.iramuteq.org/>). Sistema eragile mota guztiekin bateragarria da, eta guztiz doakoa da. Zuzenean deskarga daiteke bere web orrialdetik: <http://www.iramuteq.org/telechargement>

Softwareak aukera ematen du izaera desberdineko testuen analisi multidimentsionalak egiteko, hala nola galdera-sortetan erantzun irekiko galderak, albistek, sare sozialetako edukia, lanetako abstractak, lege testuak etab. Bereziki erabilgarria da aztertu beharreko informazio-bolumena handia den ikerketa-lanetan, beraien ikerketa eta analisisa biziki erraztuaz.

Softwarearen bidez burututako analisisien helburu nagusia testua kuantifikatzea da, haren estruktura garrantzitsuenak eruziz testu-datuei datxekien informazio oinarritzkoena erabili nahian, horrela ikerketa kualitatiboan ohiko diren fidagarritasun- eta baliozkotasun-arazoak ekidiaz.

Iramuteq-ek horrek oso modu erraz eta intuitiboan hainbat testu-analisi burutu ditzake, bai errazak, hala nola lematizazioarekin eta hitzen maiztasunarekin lotutako oinarritzko lexikografia. Baina baita konplexuagoak ere, hala nola beheanzko cluster analisi hierarkikoa, post-hoc korrespondentziaren analisi faktoriala eta antzekotasunaren analisisa. Hiztegiaren banaketa era osatu eta argian aurkezten da, analisi lexikografikotik eratorritako adierazpen grafikoekin.

**OHAR GARRANTZITSUA:** Softwareak Gaztelaniaz, Ingelese, Frantsesez eta beste hizkuntza batzuetan idatziak dauden testuak analizatzen ditu baina tamalez momentuz **EZ** ditu euskarazko testuak analizatzen. Hau da, programaren izaera libreak Euskara ikerketa hizkuntza gisa gehitzeko aukera ematen duen arren, momentuz aukera hori ez da posible

## Ikastaroan lortzeko gaitasunak

- 1.- Iramuteq softwarearen bidezko analisiak ikerketarako duten potentziala eta aplikagarritasuna ezagutzea.
- 2.- Iramuteq-en landu ahal izateko materiala nolakoa izan behar den ezagutzea
- 3.- Iramuteq-aren bidez burutu daitezkeen analisiak eta bakoitzak eskaintzen dizkigun lanabesak ezagutzea
- 4.- Iramuteq softwaretik ezauzitako datuak nola idatzi eta interpretatu jakitea.

## Edukiak

- Sarrera. Zer behar dut softwarea instalatzeko
- Aurrekari batzuk
  - Zein motatako ikerketak egin daitezke Iramuteq-ekin? Adibide batzuk
  - Nolako testu motak azter daitezke Iramuteq-ekin
- Iramuteq programan aztertzeko datu baseak nola prestatu
- Hainbat analisi Iramuteq-en bidez
  - Reiner metodo bidezko analisia: Beherantzo cluster analisi hierarkikoa
  - Similitude Lexikal analisia
  - Analisi faktorealak
  - Bestelakoak: Hitz hodeiak, subkorpusak etab.
- Iramuteq-etik erauzitako datuak nola ulertu, batu eta interpretatu
- Iramuteq-etik ateratako emaitzen erredakzioa

## Metodologia

Ikastaroan teoria eta ariketa praktikoak garatuko dira, ahal den heinean batera.

## Modalitatea

Ikastaroaren saioak era presentzialean egingo dira Leioan

## Ebaluazioa /Akreditazioa

Akreditazioa eskuratzeko kurtsoaren saio guztietara joan beharko da eta bertan eskatzen diren ariketen portafolioa entregatu beharko da. Azkenik, azken saioan era laburrean burututako ikerketa kideei azaltzeko aukera gongo da nahi dutenentzat.

## Software honekin burututako hainbat lanen erreferentziak

- Idoiaga Mondragon, N., Gil de Montes, L., & Valencia, J. (2017). Understanding an Ebola outbreak: Social representations of emerging infectious diseases. *Journal of health psychology*, 22(7), 951-960 [Irakurri artikulua](#)
- Idoiaga, N. eta Belasko, M. (2019). Understanding menstruation: influence of gender and ideological factors. A study of young people's social representations. *Feminism & Psychology*, 29(3), 357-373 <https://doi.org/10.1177/0959353519836445>. [Irakurri artikulua](#)

- Idoiaga, N., Gil de Montes, M.L., Asla, N. eta Larrañaga, M. (2019). "La Manada" in the public sphere: Coping with a sexual aggression case through Twitter. *Feminist Media Studies*, 1-18://doi.org/10.1080/14680777.2019.1643387 [Irakurri artikulua](#)
- Idoiaga, N., Dosil, M., Belasko, M. & Alonso, I. (2020). Image-based Abuse: Debate and Reflections on the "Iveco Case" in Spain on Twitter. *Journal of Interpersonal Violence*. doi:10.1177/0886260520967143 [Irakurri artikulua](#)
- Idoiaga, N., Berasategi, N., Eiguren, A., & Picaza, M. (2020). Exploring children's social and emotional representations of the Covid-19 pandemic. *Frontiers in Psychology*, 11, 1952. doi: 10.3389/fpsyg.2020.01952 [Irakurri artikulua](#)
- Idoiaga, N., Berasategi, N., Dosil, M. & Eiguren, A. (2020). Struggling to breathe: a qualitative study of children's wellbeing during lockdown in Spain. *Psychology & Health*. <https://doi.org/10.1080/08870446.2020.1804570> [Irakurri artikulua](#)
- Idoiaga, N. & Belasko, N. (2018). Loditasunaren gizarte irudikapenak eta emozioak gazteengan. *Uztaro*, 104, 31-44. [Irakurri artikulua](#)
- Larruzea-Urkixo, N., Cardeñoso, M.O., & Idoiaga, N. (2019). Emozioak unibertsitateko ikasketa prozesuen ardatz: Lehen Hezkuntzako Graduaren kasua. *Tantak* 31(1), 177-194 [Irakurri artikulua](#)

## Garapen Iraunkorrerako Helburuekin Lotura

Iramuteq softwarearen berezitasun nagusia ikertzen dituen alorretan partaide ezberdinen ahotsak eta aniztasuna jaso dezakeela da. Ezaugarri hau Garapen Iraunkorreko edozein helburu lantzeko baliagarria izan daiteke baita garapen iraunkorra lan esparru ezberdinetan nola lantzen den aztertzeke ere. Adibide gisa hemen Garapen Iraunkorrerako Helburuak Bilboko Hezkuntza Fakultateko Gradu Amaierako Lanetan nola lantzen diren Iramuteq-en bidez aztertzen duen artikulua:

- Idoiaga, N., Axpe, I., & Berciano, A. (2021). The undergraduate dissertation as a reflection of education for sustainability and professional identity: the faculty of education of Bilbao. *International Journal of Sustainability in Higher Education*. <https://doi.org/10.1108/IJSHE-09-2020-0346>

## Datuak

### Iraupena

10 ordu presentzial eta 15 ez presentzial

### Datak eta ordutegia

2024ko Ekainak 24 9:00-14:00: (presentzial)

2024ko Ekainak 26 10:00-14:00: (presentzial)

### Lekua

Hezkuntza Fakultatean (Leioa)

**Partaide kopurua**

Gehienez 15

**Hizkuntza**

Euskara

**Campus**

Bizkaiko Campusa

**Irakaslea**

Nahia Idoiaga Mondrago. Bilakaera eta Hezkuntzaren Psikologia. Bilboko Hezkuntza Fakultatea

**Izena emateko epea**

Deialdia zabaldu eta astebetetz luzatuko da izena emateko epea

**Izena emateko baldintzak eta matrikula baliogabetzea**

Inskripzioa langilearen atariaren bidez egingo da. Parte-hartzaileak izena emateko ordenaren eta hautaketaren lehentasunaren arabera hautatuko dira

Lantegian izena eman eta onartua izan den norbaitek ezin izango balu bertara joan 72 ordu aurretik jakinaraz dezan eskatzen diogu, sortutako hutsunea kanpoan geratu den beste pertsona bati eskaintzeko.